



Sagar-dantza dantzatzen.

Kirikoketaren ondorengoa

KIRIKOKETA BESTAN ATERATAKO SAGAR ZUKUAREKIN SAGARDOA EGIN DU JO ALA JO TALDEAK, ETA OTSAILAREN IOEAN UPELAK IREKIKO DITUZTE

IKER FRIAS

Arizkungo (Nafarroa) Gamioxaarra, XVIII. mendearen bukaerako baserri zaharra, jendez lepo beteko da otsailaren 10ean. Han Jo ala Jo Baztango euskal kultura taldeak besta handia egingen du, egun horretan eurek egindako sagardo upelak irekiko baitituzte. Sagardo berriaz betetako upelen irekiera ospatzeko, Arizkungo karriketatik barrena antzerki bat egingen dute goizean, eta ondoren, zikiro jatea izanen da Gamioxaarra baserrian.

Joan den urteko urriaren erdialdean, azken hamar urteetan bezala, Kirikoketa Besta egin zuten Gamioxaarra baserrian. Sagarretatik sagardoa egiteko antzinako dolare zaharrak ditu etxe zahar horrek oraindik. Jo ala Jo taldeko kideek lan ikaragarria egin zuten dolareak eta baserria berritzen. Besta egun hartan, 3.000 kilo sagar sartu zituzten dolarean, eta ohitura zaharrari jarraiki, lehenago bezala moztu eta zatitu zituzten sagar kilo horiek guztiak.

Kirikoketa izena, orain txalaparta mota batekin lotzen den arren, sagardoa


egiteko prozesutik heldutako izena da. Jo ala Jo taldeko kideek lan handia egin dute, bai galdutako txalaparta musika mota berezi hori berreskuratu dutelako, baita sagardoa lehenagoko eran egiten segitzen dutelako ere.

Dolaretik iragandako 3.000 kilo horiek sagar zuku bihurtu zituzten, eta lau hila-bete ontzen egon ostean, sagar zukua sagardo bihurtu da. 3.000 kilo sagarretik, mila litro sagardo inguru atera dituzte. «Sagardo gutxi dugu aurten. Zikiro jatean sobratzen dena botiletan sartuko dugu, jende gehiagok dastatzeko aukera izan dezan», erran du Oianko Garde Jo ala Jo kultura taldeko kideak.

Aurtengo sagardoari dagokionez, «kalitate handiko sagardoa» atera zaie, eta «dastatuz gero, oso zapore fruitutsua dauka», Gardek azpimarratu duenez. Besta egin eta gero, upeletan gelditu den sagardoa botiletan sartuko dutela erran du. Denetara, 1.500 botila inguru aterako dituzte, eta Baztango herrietan barrena merkaturatuko dituzte.

ANTZERKIA XVIII. MENDEAN GIROTUA. Otsailaren 10eko ekitaldi nagusia Arizkungo kaleetatik barrena egingen duten antzerkia izanen da. Antzerkia XVIII. mendean girotua egonen da, eta Arizkungo Herriko Etxetik aterako da, 11:00etan. Antzerkian, lehenago izaten zen ohitura bat antzeztuko da.

Lehenagoko garaian, baserrietan sagardo upelak irekitzen zituztenean,



Baztango Udaleko alkateak eta herriko alkate juratuek sagardoaren salneurria erabakitzen zuten. Horretarako, negoziazio bat egingen zen baserriko jabeen eta alkateen artean, eta bi aldeek nahi kontrajarriak zituztenez, negoziazioa oso gogorra izaten zen.

Antzerkia Arizkungo Herriko Etxetik abiatuko da, eta handik, herriko eta ibarreko udaletako ordezkariek, lehenagoko ohiturari segituz, Gamioxaarra joanen dira, aurtengo sagardoaren salneurria ezartzera. Ibilbidea eta antzerkia alaitzeko, Jo ala Joko txistulariek hainbat kanta joko dituzte.

Gamioxaarra baserria iristean, upelen ondoan etxeko nagusiak izanen dituzte zain. Agintariak eta jendea baserriara helitzean, dantzariak Baztango sagar-dantza dantzatuko dute, eta ondoren, Jon Barberena eta Jon Elizetxe bertsolariak bertsoan egingo dute.

Horren ondotik, sagardoa dastatzeko tenorea iritsiko da, eta salneurria finka-

tzeko negoziatioari ekingo diote. Bi aldeek, aldeko eta kontrako elkarren argudioak entzun ondoren, salneurria erabakiko dute bien artean. Udal agintariak, dastatzeaz gain, sagardoaren usaina, kolorea eta urarekin nahasia ote dagoen begiratuko dute. Antzerkia amaitzen dutenean, gosari xumea izanen da, 12:00etan.

ZIKIRO JATEA. Antzerkia amaituta, Gamioxaarra ziriko jatea izanen da. «Jo ala Jo elkarteak urtean ekitaldi ugari antolatzen ditu eta, ekitaldi horiek aurrera eramateko, beste elkarte eta kolektibo batzuek laguntzen dute. Beren parte-hartzea bazkari honekin eskertu nahi diegu», erran du Gardek.

Arrazoi horrengatik, elkarte eta kolektibo horiek gonbitak bidali dizkiete Jo ala Joko antolatzaileek, eta gonbit horien arabera, bazkarirako txartel kopurua finkatu dute. Txartelak bazkariko egun berean aterako dira, eta Gamioxaarra baserrian erosi ahalko dira. Zikiro jatea baserriko upelen ondoan egingen denez, lekua mugatua izango dela azpimarratu nahi izan du Gardek.

Zikiro jatean aurtengo sagardoa dastatzeaz gain, salda, zikiroa, gasna eta intxaurrek jateko aukera izanen dute bertara bildutakoek. Arratsaldean, txalaparta, kirikoketa eta txistularien doinuek besta giroa jarriko dute Gamioxaarra.

**GARAI BATEAN
UDALAK ETA
BASERRIAK
ERABAKITZEN
ZUTEN
SALNEURRIA**



SARERA BEGIRA

<http://www.etikedo.com>
Gamioxaarra dolareari eta sagardoari buruzko informazioa dago. Dena den, ez da datu askorik agertzen.